

I. SARRERA

- **Zer dira printzipioak?** Arau-multzo baten oinarritzko ideiak dira, legetik bertatik ondoriozta daitezkeen ideiak, nahiz eta berariaz aurreikusita ez dauden.
- Prozesua legearen artikulua aztertuz edo (prozesuaren) oinarritzko printzipioen bidez ikastearen alternatibaren aurrean bigarren aukera hautatzen dugu: printzipioen metodoa. Bere ezaugarri nagusiak aztertuko ditugu.
- Helburua: Interpretazio-arazoak, lege-hutsuneak, antinomiak... konpontzea, prozesuaren oinarritzko printzipioetara joz. Printzipioak interpretazio eta integrazio-elementuak dira.
- Printzipioek izaera tekniko-politikoak dute:
 - o Izaera teknikoak: Jurisdikzioaren baliabidea da, premia praktikoei erantzuteko.
 - o Izaera politikoa: Gizarteak bere ideologiaren zati bat printzipioetan irudikatzen du. Horregatik sistema politikoaren arabera desberdinak izango dira:
 - estatu demokratikoa → printzipioak: berdintasuna, publikotasuna...
 - estatu totalitarioa → printzipioak: sekretua, berdintasun-eza...
- Egoerarik egokiena: Izaera teknikoak politikoaren gainetik gailentzea. Izaera politiko eta teknikoaren nahasketaren adibidea: 1978 EK. Izan ere, **EKk prozesuaren printzipio batzuk konstituzionalizatu ditu.**
 - o EK 24 artikulua zehaztutako printzipioak auzitegiek zuzenean aplikatu ditzakete (ez dira eduki programatikoko hutsak).
 - o EK 14-29 artikuluek aurreikusitako prozesu-printzipioek babes-errekurtsoaren bitartez babes berezia dute KAren aurrean, oinarritzko eskubideak baitira.
- **Nazioarteko testu batzuk hainbat prozesu-printzipio berariaz jasotzen dituzte** bidezko prozesua bermatzeko: Izan ere, EK 10.2 art.: "Konstituzioak aintzatesten dituen oinarritzko eskubide eta askatasunei buruzko arauak Giza-Eskubideen Adierazpen Unibertsal eta materia beraien gainean Espainiak berretsitako hitzarmen eta akordioen arabera interpretatuko dira".
 - o 1948ko abenduaren 10eko Giza-Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (10 eta 11 art.),
 - o 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak (14 art.),
 - o 1950eko azaroaren 4ko Giza-Eskubide eta Oinarritzko Askatasunen Europako Hitzarmenak (6 art.).

ZUZENBIDE PROZESALA I

12. gaia: Prozesu orori komunak zaizkien printzipioak

2018/2019
ikasturtea

- **Printzipioen sailkapena:**
 - o Printzipio komunak: Prozesuaren ideia berran dauden printzipioak, juridiko-naturalak (posizio-bitasuna, kontraesana eta berdintasuna). Printzipio horietakoren bat falta bada, ez dago prozesurik.
 - o Printzipio espezifikoak: Prozesu zehatz bakoitzaren printzipioak.

II. POSIZIO-BITASUNA (dualidad de posiciones)

- Prozesua izateko edo existitzeko beharrezkoa da elkarren aurka dauden bi posizio egotea: posizio aktiboa / pasiboa.
- Izen-desberdintasuna:
 - o Prozesu zibila: posizio aktiboa = demandatzailea / pasiboa = demandatua
 - o Zigor prozesua: posizio aktiboa = akusatzailea / pasiboa = akusatua
- Ñabardura garrantzitsua: Posizio bakoitzaren barruan alderdi bat baino gehiago egon daitezke (subjektu bat baino gehiago). Beraz, posizioak beti eta derrigorrez bi dira baina horien barnean alderdi bat edo gehiago egon daitezke. Posizio batean alderdi bat baino gehiago egoteari auzikidetzeta (*litisconsorcio*) deritzen (posizio \neq alderdi).
 - o **Prozesu zibila:** Posizio bakoitzean bere eskubidearen babesean autonomiaz jarduten duen alderdi bat baino gehiago egon daitezke (adib. jabekideak).
 - o **Zigor prozesua:**
 - posizio aktiboa \rightarrow Beharrezko alderdia: Fiskaltza, baina horretaz gain, biktima (akusatzaile partikularra) eta edozein pertsona (herri-akusatzailea) ere egon daitezke.
 - posizio pasiboa \rightarrow Akusatuak pertsona batzuk izan daitezke. Prozedura bakarra dago baina prozesu-aniztasuna (bat akusatu bakoitzeko).

III. KONTRAESANA (contradicción) ETA DEFENTSA ESKUBIDEA

- Honako esalditik ondorioztatu: "Ezin da inor kondenatu aurretiaz epaiketan bera entzun gabe".
- Defentsa-eskubideari lotutako printzipioa (EK 24.1 art.: defentsa gabeziaren debekua) eta prozesuaren alderdi guztiei aintzatetsia. Bere urraketa babes-errekurtsoaren bidez sala daiteke KAn.

- **Eduki zehatza:**

a. Entzuna izateko eskubidea (derecho de audiencia)

Prozesuan parte diren alderdi guztiei aintzatesten zaie.

❖ **Materialak ezagutzeko eskubidea:** Alderdiek ebazpen judizialean eragin dezaketen *material faktikoak* eta *argudio juridikoak* ezagutzeko eskubidea dute.

- Material faktikoa: Alderdiek alegatutako egitateak eta erabilitako frogabideak ezagutu.
- Argudio juridikoak: "*lura novit curia*" printzipioa → Epailea ez dago alderdiek egindako kalifikazio juridikoei lotetsita, eta bere kalifikazio juridiko propioa egin dezake. Zelan errespetatzen da kontraesan-printzipioa? Epaia eman baino lehen bere kalifikazio juridikoa alderdiei jakinaraziz.

❖ **Entzunak izateko eskubidea:** alegazioak egiteko eskubidea, frogak eta argudioak aurkezteko eskubidea (zitazioak era egokian egin behar dira, prozesuan frogabide egokiak erabiltzeko aukera izatea).

Ezberdintasunak ordenaren arabera:

- Prozesu zibila: Legegileak alderdiei alegatu beharrekoak entzuteko aukera eskaintzen die (uko egin ahal zaio eskubideari) → Auzi-ihesak ez dakar prozesuaren esekipena.
- Zigor prozesua: Epaketan akusatua agerpena ezinbestekoa da (eskubide lagaezina) → Auzi-ihesak prozesuaren esekipena dakar.

b. Kontraesan printzipioa: legegileak ziurtatu behar du prozesu orotan alderdiak entzunak izateko oinarrizko eskubidea. alderdien arteko kontraesanari esker epailearen inpartzialtasuna bermatzen da, defentsa eskubidea eta justiziaren interes publikoa hobetuz.

IV. ALDERDIEN BERDINTASUNA (igualdad de partes)

- Oinarria: EK 1 art. (berdintasuna = ordenamendu juridikoaren *oinarrizko balioa*) eta 14 art. (berdintasuna = oinarrizko eskubidea).
- Edukia: Prozesuan alderdiei eskubide, aukera eta karga (edo zama) berdinak aintzatestea.

A. Berdintasun legala: Legeak alderdiei ahalmen eta eskubide berdinak eman ez arautu behar du prozesua. Hartutako neurriak:

- Prozesu zibila: adibidez, auzitegien lurralde-eskumendean jartzeko debekuak edota behin-behineko exekuzioaren zabaltasuna.
- Zigor prozesuan kontuan izan behar ditu fase ezberdinak:
 - Instrukzio-fasea: Fiskaltzaren nagusitasuna.
 - Ahozko epaiketa: berdintasunerako joera (guztiak dira alderdiak, Fiskaltza barne).
- Lan-prozesuan alderdirik ahulena indartsuenaren aurrean parekotasun-egoeran jartzen saiatzen diren neurriak: doakotasuna, behin-behineko exekuzioa, kautelazko neurriak hartzeko erraztasuna...

B. Berdintasun praktikoa: Argi dago alderdiak materialki desberdinak direla (desberdintasun kulturalak, sozialak eta ekonomikoak). Legegileak ahalegin berezia egin behar du desberdintasun material horiek prozesuan eraginik ez izateko.